Irakurketa Erraza

# Garisoain Sorginiturriko garbitegia

Garbitegi hau Garisoain herriaren ondoan dago,
250 metrotara.

Bentura de Urtaza hargin maisuak
garbitegi hau 1721. Urtean eraiki zuen.
**Hargin** bat harria lantzen duen pertsona bat da
ondoren harria eraikuntza bezalako
estruktura ezberdinak egiteko.
Bentura de Urtaza Aiegi herrikoa zen.

Hau Garisoaingo garbitegia da:



Garbitegia harriz egina dago.

**Zertarako balio zuen garbitegi honek?**

- Arropa garbitzeko.
- Garisoaingo emakumeak eta haien familiak elkartzen zien lekua zen.
- Ura herrira eltzeko eta horrela pertsonek edan ahal izateko.

Hemen Garisoaingoa zen
Álvaro Calderón Fernándezek idatzitako
testu bat irakur dezakezu.
Hau testu originala da
eta **ez** dago Irakurketa Errazean idatzita.

"Garai hartan (1940 inguruan), Sorginiturriko iturri-garbitegitik gora iturburu berri bat ireki zen, eta handik ura herriraino eraman zen. Artazo anaiek aska eder bat eraiki zuten iturri batekin, pertsonen zein animalien egarria asetzeko. Ura biltzeko biltegi bat ere eraiki zuten eta handik etxebizitzetara eramaten zen ura, baita garbitegi berri bat egin ere, oso gutxi iraun zuena."

Testu honek
ura herrietara nola iristen zen azaltzen du.
Duela urte asko ura iturrietatik hartu
eta etxeetara botila erraldoiekin eramaten zen.

Artazo anaiek garbitoki bat eraiki zuten
ura edateko eta arropa garbitzeko.
Ura gordetzeko eta etxeetara eramateko
biltegi bat ere eraiki zuten.

"© European Easy-to-Read Logoa: Inclusion Europe. Informazio gehiago: www.inclusion-europe.org/etr.